

## URETRAN ZEHARREKO PROSTATAREN ERAUZKETA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA RESECCIÓN TRANSURETRAL PRÓSTATA

### A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:  
..... Data: .....

### B. INFORMAZIOA:

Prostataren erauzketaren helburua adenoma kentzea da; adenoma tumore onbera bat da, prostatan hazten dena, maskuriaren lepoaren azpian, eta gernu egitea zailtzen du. Adenoma kenduko dugu, ez prostata osoa.

Helburua da gernu egiteko modua hobetzea eta maskuriko zunda iraunkorra kendu ahal izatea (halakorik baduzu).

Anestesia erregional edo orokorra eman behar da, eta horrek eragin ditzakeen arriskuen berri anestesia zerbitzukoek emango dizute. Gailu bat sartzen da uretran zehar; hots, erauzgailua, prostata zatitan mozten duena. Ordubete inguru iraungo du. Seruma jarriko dizute egun batzuez, bai eta maskuriko zunda ere, harik eta gernu argia aterata arte. 3-4 egun emango dituzu ospitalean. Zunda kendu ondoren, normal gernu egiten hasiko zara, baina azkura eta gernu-larritasuna izango dituzu eta gernua odolez bustita egongo da; dena dela, egun gutxitan desagertuko zaizkizu sintomok. Prozeduran, odol gutxi galtzen da eta, normalean, ez da transfusiorik behar izaten (% 2-3 baino gutxiago).

### C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

- Baliteke albo-ondorioak izatea, bai orokorrak, bai teknika honen espezifikokoak.
- Gernu egitearen kalitatea ezin hobetu ahal izatea. Maskuriko zunda ezin kendu ahal izatea. Gernu-inkontinentzia gertatzea (% 0,5).
- Baliteke uretra ebakuntza egiteko gailuek kaltetzea, bertatik igarotzen baitira, eta/edo ebakuntzarako erabilitako energia elektrikoak eta, ondorioz, uretrako estenosis (estugunea) eragitea. Larritasunaren arabera, baliteke beste ebakuntza batzuk egin behar izatea geroago.

### A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:  
..... Fecha: .....

### B. INFORMACIÓN:

El objetivo de la resección de próstata es extirpar el adenoma, que es una tumoración benigna que crece en la próstata debajo del cuello vesical y que dificulta orinar. Es muy importante que usted sepa que quitaremos el adenoma y no toda la próstata.

Se pretende mejorar la forma de orinar y poder retirar la sonda vesical permanente (si fuese portador de ella).

Se realiza bajo anestesia regional o total (de cuyos riesgos le informará el Servicio de Anestesia). Se introduce un aparato a través de la uretra, el resector, que corta la próstata en fragmentos. Su duración es de alrededor de una hora. Se le pondrá suero durante unos días y sonda vesical hasta que la orina aclare. La estancia en el hospital será entre 3-4 días. Una vez retirada la sonda comenzará a orinar normal, aunque seguirá con escozor, prisas por orinar y orina sanguinolenta, síntomas que desaparecerán en unos pocos días. Durante el procedimiento la pérdida de sangre es pequeña y normalmente no se requiere transfusión (menos de 2-3%).

### C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

- Pueden aparecer efectos secundarios, tanto generales como específicos de la técnica.
- No conseguir la mejoría de la calidad miccional deseada. No poder retirar la sonda vesical. Que se produzca una incontinencia urinaria (0,5%).
- La uretra, por donde se introducen los aparatos para operarle, puede verse afectada por ellos y/o por la energía eléctrica usada para la operación, y provocar estenosis (estrechez) de uretra secundaria que dependiendo de la gravedad puede requerir de otras intervenciones posteriormente.

- Atzeranzko eiakulazioa (operatutako ia paziente guztiek izan ohi dute). Ez da normala izaten ebakuntzak inpotentzia eragitea edo inpotentzia kirurgiaren albo-ondorio bat izatea. Erabilitako teknika dela eta, hainbat sintoma ager daitezke, arraroa bada ere (birxurgapen-sindromea, uretran zeharreko prostataren erauzketaren ondoren irrigazio-likidoaren hodi barneko xurgapenagatik), esaterako, hipotentsioa, amaurosi iragankorra (itsutasun iragankorra), tratamendu medikuarekin konpontzen dena.
- Ez da oso maiz gertatzen tronbosi benoso sakona edo biriketako tronboenbolismo larria (ezberdina da intentsitatearen arabera), prebenitzeko neurri profilaktikoak erabili arren.

Tratamendu medikoarekin konpondu ohi dira konplikaziook (serumak eta sendagaiak); baina, batzuetan, urgentziazko beste ebakuntza bat egin behar da. Horrek arriskuak areagotzea ekarriko luke, heriotza-arriskua barne.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

#### D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

#### E. ARRISKU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuek eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

- Eyaculación retrograda, que está presente en casi todos los pacientes intervenidos. Es excepcional el que se provoque impotencia por la intervención o como efecto secundario de la cirugía. Debido a la técnica utilizada pueden aparecer, aunque raramente (síndrome de reabsorción por absorción intravascular del líquido de irrigación post-RTU), un grupo de síntomas como hipotensión, amaurosis transitoria (ceguera transitoria), que se resuelven con tratamiento médico.
- Es poco frecuente la trombosis venosa profunda o tromboembolismo pulmonar de gravedad diferente según la intensidad, a pesar de utilizar medidas profilácticas para prevenirlos.

Estas complicaciones habitualmente se resuelven con tratamiento médico (sueros y medicación), pero a veces pueden requerir de una nueva intervención de urgencia, lo que provocaría un aumento de los riesgos incluyendo el de mortalidad.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

#### D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

#### E. RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

**F. ORDEZKO AUKERAK:**

Zunda iraunkor bat eramatea. Prostatektomia irekia. Tratamendu farmakologikoa. Protesi intraprostático bat jartzea. Nolanahi ere, zuretzako egokiena uretran zeharreko prostataren erazketa dela uste dugu.

Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetz. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINi, agintaritza judizialei eta aseguru-erakundeei. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzako osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/>.

**F. ALTERNATIVAS:**

Llevar una sonda permanente. La prostatectomía abierta. Tratamiento farmacológico. La colocación de una prótesis intraprostática. Consideramos que en su caso, lo más adecuado es la resección transuretral.

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>.

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El Paciente	
Pazientearen izen-abizenak Nombre, dos apellidos	.....
Sinadura eta data Firma y fecha	.....
<div style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; height: 50px; width: 100%;"></div>	

**Medikua/Ei/La Médico**

**Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.**

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Legezko Ordezkarria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante legal: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad**

**Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal**

**Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.**

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

**Sinadura eta data**

Firma y fecha